

**HITZARMENA, ZAMUDIOKO UDALAREN ETA
LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA-
REN ARTEKOA, ZAMUDION 2025EAN EUSKA-
RAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUE-
RAK EGITEKO IZENDATUTAKO DIRULAGUN-
TZA EMATEKO HELBURUA DUENA**

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE
ZAMUDIO Y LA ASOCIACION LAGATZU PARA
LA CONCESION DE SUBVENCION NOMINA-
TIVA PARA ACTIVIDADES DE PROMOCION
DEL USO DEL EUSKERA EN ZAMUDIO EN EL
AÑO 2025**

Zamudion, bi mila eta hogeitabosteko maiatzaren 9an .

En Zamudio, a 9 de mayo de dos mil veinticinco

BILDU DIRA

REUNIDOS

ALDE BATETIK, Alcalde LANDER ARETXABALETA JAUREGI alkatea, Zamudioko Udalaren izenean eta ordezkari gisa;

DE UNA PARTE, el Sr. Alcalde D. LANDER ARETXABALETA JAUREGI, actuando en nombre y representación del Ayuntamiento de Zamudio.

ETA BESTE ALDETIK, GABRIEL ETXEBARRIA ZAMAKONA jauna, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAREN (IFK: G 95032009) izenean eta ordezkari gisa diharduena eta helbidea Zamudioko Aresti kaleko 2ko behean duena. Ordezkaritza hori egiaztatuta dago estatutuak eta Eusko Jaurlaritzaren erregistro egokian izena emana dagoela eta izen emate hori indarrean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu dituelako, bai eta aurretik ekarritako dokumentazioagatik ere.

DE OTRA PARTE, D. GABRIEL ETXEBARRIA ZAMAKONA, actuando en nombre y representación de LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, con CIF nº G 95032009 y domicilio en Aresti Kalea, 2 bajo de Zamudio, según tiene acreditado por la aportación de los estatutos, certificado en vigor de inscripción en el Registro correspondiente del Gobierno Vasco y documentación anteriormente aportada.

Alderdi biok agiri hau formalizatzeko gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri; era berean, elkarri onartu dizkiote jarduteko euren gain hartutako ordezkariak. Beraz, ados jarriak honako hau

Las partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo,

ADIERAZTEN DUTE

MANIFIESTAN

LEHENA.- Toki erakundeek aurrekontuetan izendaturik aurreikusita dauden dirulaguntzak zuzenean eman daitezke, hala xedatua baitago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan, 23. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiaren ildotik. Halako dirulaguntzak bideratzeko, hitzarmena izaten da ohiko tresna, dirulaguntzen araudian horri buruz xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

PRIMERO.- El Art. 28 en relación con el artículo 23, 2, a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones establece que las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos de las Entidades Locales, podrán concederse directamente, en los términos contenidos en la citada Ley, siendo el convenio el instrumento habitual para canalizar dichas subvenciones, todo ello sin perjuicio de lo que a este respecto establezca la normativa reguladora.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez eman den dirulaguntza diru xedapen bat da, Udalak onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egin duena; diru xedapen hori erakunde pribatu baten mesedetan egin du erakunde pribatu horrek jarduerak edo programa batzuk egin ditzan, in-

SEGUNDO.- La subvención a que se refiere el presente Convenio supone una disposición dineraria realizada por el Ayuntamiento sin contraprestación directa de los beneficiarios, a favor de una entidad de carácter privado para la realización de unas actividades o programas que, cum-

darreko araudian ezarritako baldintzak betez; jarduera eta programon xedea izango da herri onurako edo gizarte intereseko jarduera bat edo xede publiko bat sustatzea, betiere xede horren bidez osatu edo ordeztzen badira Zamudioko Udalak euskararen erabilera herrian sustatzeko dituen eskumenak.

HIRUGARRENA.- 2025eko ekitaldirako Udal Aurrekonturako Arauak 24. oinarrian arautzen ditu izendatzen diren zuzeneko dirulaguntzak. Hala-ko dirulaguntzak izaten dira 2025eko udal aurrekontuko transferentzien eranskinean erabat identifikatuak dauden erakunde edo pertsonentzat ezarri direnak; eranskin horretan, **HOGEI TA LAU MILA ETA HAMAR EUROKO (24.010,00 euro)** kopurua ezarri da mugatzat.

LAUGARRENA.- LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK 2025ean egitekoak diren jardueren eta haien kostuen aurreikuspena aurkeztu du Zamudioko Udaletxean. Gainera, ekitaldi horretarako diru sarrerak eta gastuak ere aurkeztu ditu, behar den moduan banakaturik, eta egiaztatu du ez dela gehiegizko finantzaziorik izango.

BOSGARRENA.- Pentsatu diren jarduera guztiak ikusirik, Zamudioko Udalak uste du hitzarmen honen bidez finantzatzekoak direla guztiak, eta, horregatik, hemen ezarritako konpromisoak aplikatu behar zaizkiela; dirulaguntzarik gabe geratuko dira, ordea, Udalaren dirulaguntza zeharka hartzen dituzten jarduerak, batetik, eta langile gastuak, bestetik; aipatu diren zeharkako dirulaguntzak dira Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen bitartez edo Zamudioko Udalak parte hartzen duen beste edozein erakunde publiko edo pribaturen bitartez ematen direnak.

SEIGARRENA.- Zamudioko Udalak ez du inolako obligaziorik hitzarmen hau luzatzeko; hurrengo lankidetzetarako beharrezkoa izango da berriaz beste hitzarmen bat izenpetzea.

Aurretik aipatu diren aurrekariak eta adierazpenak kontuan izanik, alderdi biek hitzarmen hau formulatu dute, eta haren bidez arautu da zein baldintzatan emango den udal dirulaguntza; dirulaguntzaren helburua da, batetik, euskararen erabilera eta euskal kultura bere agerpide guztietan sustatzen dituzten jarduerak, programak eta proiektuak finantzatzea

plindo los requisitos contemplados en la normativa vigente, tengan por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública que complementen o suplan las competencias del Ayuntamiento de Zamudio en el área de la promoción del uso del euskera en el municipio.

TERCERO.- La Norma Presupuestaria municipal para el Ejercicio de 2025 regula en su Base 24 las subvenciones nominativas directas. Dichas subvenciones son aquéllas que se destinan a entidades o personas que se encuentran plenamente identificadas en el Anexo de Transferencias del Presupuesto Municipal para 2025, encontrándose como límite el importe reflejado en el citado Anexo para **VEINTICUATRO MIL DIEZ EUROS (24.010,00 euros)**.

CUARTO.- LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, ha presentado en el Ayuntamiento de Zamudio la previsión de las actividades y costos de las mismas a realizar en el año 2025. Además presenta los ingresos y gastos debidamente previstos para el citado ejercicio, acreditando la inexistencia de sobre financiación.

QUINTO.- De todas las actividades proyectadas, el Ayuntamiento de Zamudio estima que todas ellas, excepto aquellas que son objeto de subvención de forma indirecta por el Ayuntamiento a través de la Mancomunidad de Servicios del Txorierri o cualquier otra entidad pública o privada en la que participe el Ayuntamiento de Zamudio, así como los gastos destinados a personal, son objeto de financiación mediante el presente Convenio, por lo que les es de aplicación los compromisos aquí reflejados.

SEXTO.- No existe por parte del Ayuntamiento ningún tipo de compromiso para prorrogar el presente convenio, requiriéndose de forma expresa la firma de un nuevo convenio para realizarse sucesivas colaboraciones.

De conformidad con los antecedentes y manifestaciones anteriormente reflejadas, ambas partes formulan el presente Convenio regulador de las condiciones de la concesión de subvención municipal para la financiación de las actividades, programas y proyectos destinados a la promoción del uso del euskera y de la cultura vasca en sus diversas manifestaciones, así como

eta, bestetik, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAren funtzionamendu gastuei erantzutea.

de los gastos de funcionamiento de la asociación LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

CLAUSULAS

LEHENA.- DIRULAGUNTZAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAk udalerrian euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko formulatu dituen jarduerak, programak eta proiektuak finantzatzea, ERANSKINEan jasota ageri diren bezala; izan ere, jarduera, programa eta proiektuok interes orokorrekoak dira eta Udalaren Kultura Sailaren urteko programazioa osatzen dute. Dirulaguntzaren helburua elkar-teak izaten dituen kudeaketa eta administrazio gastuei erantzutea ere izango da, baldin eta gastuok ezinbestekoak badira elkartearen funtzionamendurako eta iraupenerako, ERANSKINEan jasotakoaren arabera.

HITZARMEN honen esparrutik kanpo geratuko dira, zuzenean edo zeharka, honako hauek ordaintzera bideratu nahi diren dirulaguntzak edo laguntzak: banku kontuetan zor diren korrituak, bestelako korrituak, errekarquak, eta administrazio eta zigor zigorrak eta prozedura judizialen gastuak.

BIGARRENA.- ONURADUNAK

Dirulaguntza hauen onuraduna LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA da; elkarte hori behar den moduan inskribatua dago Euskadiko Autonomia Erkidegoan dagokion erregistroan, Eusko Jaurlaritzaren Elkar-teei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearekin bat etorritik; era horretan honako hau egiaztatu du elkarteak:

- ✓ Bere helburuen artean dagoela Zamudioko udalerrian euskararen erabilera eta euskal kultura sustatzeko kultur jarduerak egitea.
- ✓ Egoitza Zamudion duela eta Zamudion egiten dituela bere jarduerarik gehienak.
- ✓ Hitzarmen honetan ezarri diren gainerako betebeharrak gauzatzeko konpromisoa duela.

PRIMERA.- OBJETO DE LA SUBVENCION

El presente Convenio tiene por objeto financiar las actividades, programas y proyectos que se han formulado por parte de LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA y que desarrollan actividades en materia de promoción del uso del euskera y de la cultura vasca en el municipio, tal y como se recogen en el ANEXO, ya que son de interés general y que complementan la programación anual del Área de Cultura del Ayuntamiento. También son objeto de subvención los gastos de gestión y administración soportados por la asociación que les resultan imprescindibles para su funcionamiento y existencia como tal y que se recogen igualmente en el ANEXO.

No se incluyen en el presente CONVENIO subvenciones o ayudas destinadas, directa o indirectamente, a abono de intereses deudores de las cuentas bancarias, intereses, recargos y sanciones administrativas y penales y gastos de procedimiento judiciales.

SEGUNDA.- BENEFICIARIOS

Es beneficiario de éstas subvenciones la asociación LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, la cual se encuentra debidamente registrada en el Registro correspondiente de la Comunidad Autónoma Vasca, de acuerdo con la Ley 3/1988, de 12 de febrero de Asociaciones del Gobierno Vasco, conforme se ha acreditado por la misma:

- ✓ Haber acreditado tener, entre sus fines, la realización de actividades culturales relativas a la promoción del uso del euskera y de la cultura vasca en el municipio de Zamudio.
- ✓ Tener la sede y/o ejercer la mayor parte de sus actividades en Zamudio.
- ✓ Compromiso de dar cumplimiento a las demás obligaciones establecidas en el presente Convenio.

HIRUGARRENA.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Elkarte interesdunak dirulaguntza eskaerarako galdatutako dokumentazio guztia aurkeztu du osorik eta zehatz; dokumentazio hori zehaztuta dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan, Erregelamenduan garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren.

Hitzarmen honen bidez dirulaguntza emandako kultura proiektua, programa edo jarduera ERANSKINEan dago zehaztua, eskatutako edukiarekin.

LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN HELBURUA ETA ZENBATEKOA

Udalak, gehienez ere, hitzarmen honetan adierazitako zenbatekoa ordainduko dio elkarteari; emandako dirua adierazitako helburuetarako erabili behar da, kontuan izanik 2025eko ekitaldirako ERANSKINEan nola dauden banakaturik zenbatekoak eta elkarreak **HOGEITA ETA LAU MILA ETA HAMAR EUROKO (24.010,00 euro)** dirulaguntza hartzeko egin duen eskaera.

Dirulaguntzarik ematen bada, dirulaguntza hori inoiz ez da izango eskatu dena edo aurrekontuan mugaturik ezarri dena baino handiagoa.

Hitzarmen honen ERANSKINEan dago zehaztua zein gastu, programa, proiektu eta jarduerari ematen zaion dirulaguntza, eta zenbatekoa den haietako bakoitzerako dirulaguntza. Adierazitako zenbatekoak ezin izango dira bideratu aipatutakoak ez diren beste jarduera batzuetara.

Gertatzen bada proiekturen edo jardueraren bat geldiarazten dela edo ezeztatzen dela edo dirulaguntza emandako jardueraren batean beste edozein aldaketa egiten bazaio, orduan Udalak eskatu ahalko du itzul dakiola dirulaguntza emandako jarduerari edo jarduerari aplikatu gabe geratzen den dirulaguntzaren zenbatekoa.

Udalak, aurrekontuetan zein baliabide dituen

TERCERA.- PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACIÓN

La asociación interesada ha presentado de forma completa y detallada la totalidad de la documentación exigida para la solicitud de la subvención, detallada en el Art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, como en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, de desarrollo del reglamento y en la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

El Proyecto, programa o actividad cultural que es objeto de la subvención contenida en el presente Convenio, se recoge en el ANEXO, con el contenido exigido.

CUARTA.- DESTINO DE LA SUBVENCION E IMPORTE

El importe total que se abonará por el Ayuntamiento a dicha asociación el importe reseñado en el presente Convenio, debiendo destinar las distintas cantidades entregadas a los fines indicados por los importes que se reseñan desglosados en el ANEXO, para el ejercicio 2025, y a la vista de la solicitud presentada por la asociación a **VEINTICUATRO MIL DIEZ (24.010,00 euros)**.

En ningún caso se concederá una subvención que supere ni lo solicitado ni lo establecido de forma limitada en el presupuesto.

El ANEXO de éste Convenio establece los gastos, programas, proyectos y actividades que son objeto de subvención e importe correspondiente a cada uno de ellos. No podrá destinar los importes indicados a actividades distintas de las que se refiere.

En el caso cualquier suspensión o anulación de proyectos o actividades, así como cualquier otra modificación respecto de las actividades que hayan sido objeto de subvención por el Ayuntamiento el Ayuntamiento podrá requerir la devolución o reintegro del importe de la subvención correspondiente que no haya sido objeto de aplicación a la actividad o actividades subvencionadas.

El Ayuntamiento, en función de la disponibilidad

ikusirik, jarduerarik interesgarrienak lehenetsiko ditu; beraz, dirulaguntzarik ematen badu, gerta daiteke proiektuan gastuen eta diru sarreren artean adierazitako aldea osorik ematea dirulaguntza gisa.

Zamudioko Udalak onartutako dirulaguntza hau oroharreko dirulaguntza da, diru kopuru jakinikoa; dirulaguntza emandako jarduera guztiz betearazteko falta den finantzazio zatia onuradunaren kontura geldituko dela ulertuko da; finantzazio publikoak jardueraren guztizko kostua gaingitzen badu, jardueraren guztizko kostua gaingitzen duen zatia baino ez du itzuli behar harko finantzazio publikotik.

BOSGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Dirulaguntzaren zenbatekoa –dirulaguntza aurretiaz egindako ordainketa da berez– elkarte onuradunak adierazitako banku kontuan ordainduko da; elkarteak banku kontu horren titularra izan behar du. Ordainketa, gehienez ere, hilabeteko epearen barruan egingo da hitzarmen hau izenpetzen denetik zenbatzen hasita.

LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK, onuradun den aldetik, banku erakundearen ziurtagiria aurkeztu du dirulaguntzaren sarrera egin baino lehen; ziurtagiri horretan adierazi du bera dela adierazitako banku kontuaren titularra, dirulaguntza banku kontu horretan egin dakion.

Eskatzaileari ez zaio eskatuko bermea jar dezala gordailuan, betebeharrak beteko dituela eta emandako dirua egoki erabiliko dela bermatzeko.

Ez zaio ordainduko, baldin eta elkarte onuradunak aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzetatik Udalak haietakoren baten justifikazioa onetsi ez badu onuradunak hitzarmenaren klausularen bat bete ez duelako, ezta ordainketa egunean ez badauzka beteta bere zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak, edota zorduna bada itzultzea agintzen dion ebazpen baten ondorioz.

SEIGARRENA.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

presupuestaria, prioriza únicamente las actividades más interesantes, de forma que puede ser subvencionada, en su caso, la totalidad de la diferencia entre gastos e ingresos señalada en el proyecto.

La subvención concedida por el Ayuntamiento de Zamudio tiene la consideración de subvención a tanto alzado y por un importe cierto, entendiéndose que queda de cuenta del beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada en tal caso la financiación pública únicamente por el importe que rebasara el coste total de dicha actividad.

QUINTA.- FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN

El importe de la subvención, que tiene la consideración de pago anticipado, se abonará en el número de cuenta bancaria indicado por la asociación beneficiaria y de la que ésta sea titular, en el periodo máximo de un mes contado a partir de la firma del presente convenio.

LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, como beneficiaria, ha procedido a la presentación, antes de la realización del ingreso de la subvención, del certificado de la entidad bancaria en el que conste que la misma es titular del número de cuenta que en el mismo se indique, a fin de efectuar en la misma el abono de la subvención.

No se exigirá el depósito de garantía alguna a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones y el destino de los fondos concedidos.

No se realizará el abono en el caso de que la asociación beneficiaria tuviera alguna subvención de ejercicios anteriores cuya justificación no hubiera sido aprobada por el Ayuntamiento como consecuencia de incumplimientos del beneficiario, ni si en el momento del pago no se hallare al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.

SEXTA.- OBLIGACIONES DEL BENEFICIARIO

LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK, dirulaguntzaren onuraduna den aldetik, hitzarmen honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako betebeharrak bereziak ez ezik, beste hauek ere bete behar ditu berariaz:

- Elkarkei buruzko araudiak ezarritako betebeharrak betetzea.

- Finantza egoera egiaztatu eta kontrolatzeko jardueri ezetik ez esatea; beraz, jardueri buruz eskatzen zaizkion argibide guztiak eman behar ditu.

- Kontabilitate liburuak eta legeria aplikagarriak onuradunari kasuan-kasuan eskatutako agiriak edukitzea.

- Jasotako dirua aplikatu dela egiaztatzen duten agiriak gordetzea.

- Jasotako dirua itzultzea, baldin eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera dirulaguntza itzultzeko arrazoirik gertatzen bada.

- Programa, jarduera edo proiektuak garatzeko, esku programarik, kartelik, argazkirik, argitalpenik edo beste edozein eratako agiri grafikorik egiten bada, argi azaldu behar da Zamudioko Udalak babesa eman duela programa, jarduera edo proiektua garatzeko; horretarako, ondo ikusteko moduko logotipoa agertu behar da, dirulaguntzaren zenbatekoarekin bat etorriko dena. Propaganda, gutxienez, euskaraz inprimatu da.

- Udalaren dirulaguntza jaso duten proiektuak edo jarduerak eten edo deuseztatzen badira edo dirulaguntzaren eskaeran azaldutakoa aldatzen bada, horren berri ematea. Udalak baimen berezia eman dezake, jardueraren edo programaren bat ezeztatuta edo aldatuta geratzen bada, hartarako dirua beste jarduera edo programa batera bideratzeko.

- Jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeko indarrean dagoen araudia betetzea (erantzukizun zibileko aseguru, joko eta ikuskizunen araudia, espazio publikoa erabiltzeko udal baimena, etab.).

- Elkarkeak herriko jai ekitaldiak prestatzeko

Son obligaciones específicas de LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, como beneficiario de la subvención, además de las contenidas en éste Convenio y demás normativa aplicable, deberá dar cumplimiento de forma específica a las siguientes:

- Cumplir las obligaciones impuestas por la normativa reguladora de las asociaciones.

- Someterse a las actuaciones de comprobación y control financiero, aportando cuanta información les sea requerida en el ejercicio de estas actuaciones.

- Disponer de los libros contables y demás documentos exigidos por la legislación aplicable al beneficiario en cada caso.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos.

- Proceder al reintegro de los fondos percibidos en caso de incurrir en causas de reintegro de las señaladas en el Artículo 37 de la Ley General de Subvenciones.

- Establecer de forma clara en los ejemplares de programas de mano, carteles, fotografías, publicaciones u otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, actividad o proyecto la expresa mención del patrocinio del Ayuntamiento de Zamudio con la inserción del logotipo visible y acorde a la cuantía de la subvención. La propaganda irá impresa al menos en euskera.

- Comunicar cualquier suspensión o anulación de proyectos o actividades que hayan sido objeto de subvención por el Ayuntamiento, así como cualquier otra modificación respecto de lo contenido en la solicitud de subvención. El Ayuntamiento podrá autorizar de forma específica cambiar el destino del importe concedido, para la actividad o programa anulado o modificado, a otra actividad o programa.

- Cumplir con la normativa vigente en lo referente a la organización de actividades y espectáculos públicos (seguro de responsabilidad civil, normativa de juegos y espectáculos, autorización municipal de uso de espacio público, etc.).

- La asociación participará en todas aquellas

egin beharreko batzar guztietan hartuko du parte, elkarre bakoitzak jai egunetan egingo dituen jarduerak koordinatuko baitira batzarrotan; modu aktiboan hartu beharko du parte batzar horietan.

- Udalak emandako arauak eta jarraibideak betetzea, udalerrian jardueri buruzko publizitatea jartzeari dagokionez, udalerrian estetika mantentzeko irizpideak gordetzeko.

Jarduera propioak garatzeko dirulaguntza, hain zuzen, elkarrearen eta Zamudioko herritarren helburuak hobeto betetzeko asmoz emango da, hau da, interes orokorraren alde; hori dela eta, elkarreak konpromisoa hartzen du antolatu nahi dituen jarduerak udalak berak antolatzen dituenekin batera ez egiteko edo sustatzeko, ez eta udalerriko herritar talde bera hartzaile nagusi izan ditzaketen beste elkarre batzuek antolatzen dituztenekin batera ere. Konpromiso hori ondo bete dadin, elkarreak konpromisoa hartzen du udalak eskaintzen duen udal-aplikazioa erabiltzeko. Aplikazio horretan alde aurretik ematen dira ezagutzera eta zehazten dira udalak eta gainerako elkarreek antolatzen dituzten jarduera eta ekitaldi guztiak eta, ondorioz, herritarren zein talderi zuzenduta dagoen ere bai. Aipatutako konpromisoa betetzea funtsezkoa da dirulaguntzaren bitartez udalerriko herritarren onurarako lortu nahi diren interes orokorrerako helburuak erdiesteko.

Baldin eta hartzaile-profil berari zuzendutako udalaren edo beste elkarre zein entitate batzuen jarduerak existitzen badira, jarduera dirulaguntza honetan xede diren artean sartu ahal izateko, udalaren berariazko baimena beharko da jarduera egin ahal izateko.

Elkarreak, bere gain hartutako eta klausula honetan jasotako konpromisoren bat betetzen ez duen bakoitzean, udalak emandako dirulaguntzaren % 5 itzuli beharko du, gehi berandutze-interesak. Horretarako, dagokion espedientea izapidetuko da, Dirulaguntzei

reuniones que sea preciso realizar para la realización de las actividades festivas del municipio a fin de coordinar las actividades a ejecutar por cada asociación durante los periodos festivos, participando activamente en las mismas.

- Dar cumplimiento a la normativa y pautas establecidas por el Ayuntamiento en relación con la colocación de propaganda de las actividades en el municipio, a fin de dar cumplimiento a los criterios de mantenimiento de la estética en el municipio.

A fin de un mejor cumplimiento de los objetivos de la Asociación y de los vecinos de Zamudio, en beneficio del interés general, a cuyo fin se concede la subvención para el desarrollo de las actividades propias, la asociación asume el compromiso de no realizar o promover actividades propias de forma simultánea a las organizadas por el Ayuntamiento u otras asociaciones que puedan tener como principal destinatario un mismo grupo de población del municipio. A fin de hacer efectivo dicho compromiso, la asociación se compromete a utilizar la aplicación municipal puesta a disposición de la misma por el Ayuntamiento en los que se da a conocer y se reflejan con la antelación necesaria las distintas actividades y eventos organizados por el Ayuntamiento y demás asociaciones y consecuentemente al grupo poblacional al que va dirigido. El cumplimiento del citado compromiso resulta fundamental a fin de lograr los objetivos para el interés general, que con la concesión de la subvención se pretenden para beneficio de la población del municipio.

En el caso de que existan otras actividades del Ayuntamiento o de otras asociaciones o entidades dirigidas al mismo perfil de destinatarios, se requiera para que la actividad pueda considerarse incluida dentro de las que son objeto de la presente subvención, la autorización expresa del Ayuntamiento para la realización de la actividad en cuestión.

Cada vez que se produzca un incumplimiento del compromiso asumido por la asociación a que se refiere la presente cláusula implicará el reintegro del 5% de la subvención concedida por el Ayuntamiento incrementadas con los intereses de demora. A tal efecto se trami-

buruzko Lege Orokorraren 41. artikuluan eta garatzeko erregelamenduaren 94. artikuluan eta hurrengoetan jasotako baldintzekin bat etorritz.

Udalak emandako arauak eta jarraibideak betetzea, udalerrian jardueri buruzko publizitatea jartzeari dagokionez, udalerrian estetikamente mantentzeko irizpideak gordetzeko.

ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ERABILERAKO JUSTIFIKATZEA

1.- Dirulaguntzak emateari buruzko Udal Ordenantza Orokorraren 1. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK dirulaguntzaren erabileraren justifikazioa aurkeztu beharko du hiru hilabeteko epean, jarduera edo programa amaitzen denetik zenbatzen hasita; edozein kasutan ere, Udalari edozein eratako dirulaguntza eskatzen badiu, dirulaguntza zein ekitalditan eman eta hurrengo ekitaldian aurkeztu behar du justifikazioa; hau da, dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen, baldin eta diruz lagundutako jardueraren betearazpena bat badator egutegiko urtearekin.

Interesdunak justifikazioa aurkezteko epe arrunta luza dadila berariaz eskatzen badu epe hori amaitu baino lehen, Zamudioko Udalak justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal du, betiere luzapenak epearen iraupenaren erdia gainditzen ez badu eta horrekin hirugarrenen eskubiderik kaltetzen ez bada.

Justifikazioa aurkezteko ezarritako epea Zamudioko Udalari justifikaziorik aurkeztu gabe igarotzen bada, Zamudioko Udalak onuradunari eskatuko dio hamabost eguneko epe luzaezinean aurkez dela eskatutako dokumentazioa. Atal honetan ezarritako epean justifikaziorik ez aurkezteak berekik ekarriko ditu dirulaguntza itzuli beharra eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren ezarritako gainerako erantzukizunak. Justifikazioa atal honetan ezarritako epe gehigarrian aurkezteak ez du onuraduna libratuko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren arabera dagozkion zigorretatik.

tará el correspondiente expediente en los términos contenidos en el Art. 41 y siguientes de la Ley General de Subvenciones y 94 y siguientes del Reglamento de desarrollo.

Dar cumplimiento a la normativa y pautas establecidas por el Ayuntamiento en relación con la colocación de propaganda de las actividades en el municipio, a fin de dar cumplimiento a los criterios de mantenimiento de la estética en el municipio.

SEPTIMA.- JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN

1.- Sin perjuicio de lo establecido en el Art. 17 de la Ordenanza General Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA deberá presentar, en el plazo de tres meses, contados desde la finalización de la actividad o programa, su correspondiente justificación, y en todo caso antes de la presentación de la solicitud de subvención por la misma al Ayuntamiento, por cualquier clase de subvención, en el ejercicio siguiente a aquél para el que se le concedió la subvención, esto es, antes del 31 de marzo del ejercicio siguiente para el que se concede la subvención, en el caso de que la ejecución de la actividad subvencionada coincidiera con el año natural.

El Ayuntamiento de Zamudio, podrá otorgar, previa solicitud expresa del interesado antes de la finalización del plazo ordinario de justificación, una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación, que no exceda de la mitad de mismo y siempre que con ello no se perjudiquen derechos de terceros.

Transcurrido el plazo establecido de justificación sin haberse presentado la misma ante el Ayuntamiento de Zamudio, éste requerirá al beneficiario para que en el plazo improrrogable de quince días sea presentada la documentación requerida. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido en este apartado llevará consigo la exigencia del reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Ley General de Subvenciones. La presentación de la justificación en el plazo adicional establecido en este apartado no eximirá al beneficiario de las sanciones que, conforme a la Ley General de Subvenciones, correspondan.

2.- Onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000.- eurotik beherakoa denez, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 75. artikulua da aplikagarria; artikulua horrek dirulaguntza justifikatzeko «justifikazio kontu sinplifikatua» ezartzen du eta dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Jarduerari buruzko oroitidazki bat, dirulaguntza onartzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duena; txosten horretan, zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren adierazi behar da.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat; zerrenda horretan zehaztuko da zein diren hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordaintzeko data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, izandako desbideratzeak aipatuko dira.

c) Xehetasun orri bat, diruz lagundutako jardueraren finantzatu duten beste diru sarrerak edo dirulaguntzak zehaztuko dituen; orri horretan, zenbatekoak eta jatorriak aipatuko dira.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainagiria, baldin eta aplikatu ez den geldikinik eta geldikinen ondoriozko korriturik badago

e) Liburuxka, kartel, liburu edo antzekoen ale bat, argitaratzeko erabilitako formatua edozein dela: liburua, irudia, soinua nahiz digitala. Material hori dirulaguntzaren onuradun den elkarteak argitaratua izango da, diruz lagundutako jardueraren edo programaren berri ematen duena iragartzen duena.

f) Aurreko urteren batean Udalak LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAri dirulaguntzarik eman badio jarduera edo proiektuaren baterako, eta elkarte horrek dirulaguntza erabat justifikatu ez badu, Udalak ez du ordaintzeagindurik emango elkartearen izenean.

Zamudioko Udalak laginak hautatzeko tekniken bidez egiaztatuko ditu banaka gutxienez dirulaguntzaren % 10era heltzen diren fakturen edo zenbatekorik handieneko fakturen jatorrizko justifikazioak, baldin eta baturik jardueraren

2.- Dado que la cuantía de la subvención concedida es de un importe menor de 60.000.- €, será de aplicación el Art. 75 del Reglamento de Subvenciones que establece la cuenta justificación simplificada para la justificación de la subvención, deberá aportarse la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

d) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

e) Un ejemplar de los folletos, carteles, libros, etc. en formato libro, imagen, sonido o digital que se haya editado por la asociación beneficiaria de la subvención con ocasión de la realización de la actividad o programa subvencionado.

f) En el caso de que LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA no haya justificado totalmente cualquier otra actividad o programa para la que el Ayuntamiento haya concedido una subvención en ejercicios anteriores, no se procederá al libramiento de cantidad alguna a favor de la misma.

El Ayuntamiento de Zamudio, comprobará, a través de las técnicas de muestreo, los justificantes originales de las facturas que individualmente supongan al menos un 10% de la subvención concedida y de aquellas facturas de

betearazpenaren %75era heltzen badira. Horretarako, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK lehen aipatu diren gastuen jatorrizko frogagiriak edo behar den moduan egiaztatutako frogagiriak aurkeztu behar ditu; frogagiriok diruz lagundutako jarduera, proiektua edo programa egitearen ondorioz sortutakoak izango dira. Frogagiriok honako hauek izan behar dute: jatorrizko fakturak, baliozkotasun juridikoa duten kopia egiaztatuak edo trafikiko juridikoan eta merkatuan baliozkotasuna duten gainerako agiriak, baldin eta gastuak frogatzeko aurreko agiriaren pareko baliozkotasuna badute.

Elkartearen ordezkariak izenpetutako ziurtagiri bat ere aurkeztuko du; aurkeztutako gastuen frogagiri guztiak diruz lagundutako programari, proiektuari edo jarduerari dagozkiola egiaztatu du ziurtagiri horretan.

Era berean, LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK Zamudioko Udalaren – dirulaguntzaren emailearen, alegia– egiaztatze lanei egin behar die men, bai eta eskumena duten kontrol organoek finantza arloan egingo dituzten egiaztatze eta kontrolatze lanei. Hori dela eta, lan horiek bete ahal izateko eskatuko zaizkion informazio guztiak eman beharko ditu.

ZORTZIGARRENA.- BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEAK Zamudioko Udalarengandik jasotako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuak emandako dirulaguntzekin, bai eta jarduera, proiektua edo programa finantzatzeko erabiltzen den beste edozein eratako diru sarrerekin ere. Nolanahi ere, dirulaguntza emandako jarduera edo programa betearazteko lortzen den finantzazioaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan dirulaguntza emandako programaren kostua baino. Gehiegizko finantzaziorik izanez gero, elkarrekin gehiegizko finantzaziorik dagokion zenbatekoa itzuli beharko du.

AZKEN XEDAPENA

Hitzarmen honetan xedatu ez den guztirako aplikatzekoa izango da Dirulaguntzei buruzko

mayor importe, que sumadas representen un 75% de la ejecución de la actividad, a cuyo fin la asociación LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA presentará los justificantes originales, o debidamente compulsados, de los gastos antes indicados y que se han devengado como consecuencia de la realización de la actividad, proyecto o programa subvencionado. Dichos justificantes consistirán en facturas originales o copias compulsadas con validez jurídica o cualesquiera otros documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil.

Se aportará también un certificado suscrito por el representante de la asociación en el que conste que todos los justificantes de gastos que se presentan se corresponden al programa, proyecto o actividad subvencionadas.

Igualmente la asociación LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA, deberá someterse a las actuaciones de comprobación y efectuar, en su caso, por el Ayuntamiento de Zamudio, concedente de la subvención, así como cualesquiera otras acciones de comprobación y control financiero que se realicen por los órganos de control competentes, debiendo aportar cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

OCTAVA.- COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

Las subvenciones que LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA pudiera percibir del Ayuntamiento de Zamudio serán compatibles con las de otras administraciones o entes públicos o privados o cualquier otro tipo de ingreso para financiar la actividad, proyecto o programa. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida para la ejecución de la actividad o programa subvencionado no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado. En el caso de que se diese sobrefinanciación la asociación deberá proceder a la devolución del importe correspondiente a dicha sobrefinanciación.

DISPOSICION FINAL

En lo no dispuesto en el presente Convenio, será de aplicación lo establecido en la Ley 38/2003, de



www.zamudiokoudala.net

Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta Udal Ordenantza Orokorrean ezarritakoa.

Alderdi biak hitzarmen honetan adierazitakoa-rekin ados daudenez, alderdi bion ordezkariak izenpetzen dituzte kopia bina eta xede bakararrekin, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

ALKATEA,

Lander Aretxabaleta Jauregi

17 de noviembre General de Subvenciones y en la Ordenanza Municipal General.

Resultando ambas partes conformes con el contenido del presente Convenio, se firman por los representantes de las mismas por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

LAGATZU ZAMUDIOKO EUSKERA ALKARTEA,

Gabriel Etxebarria Zamakona